

**Nire ametsa
betetzea
nahi dut**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

**Nire ametsa
betetzea
nahi dut**



JARDUERAREN IZENA:

Nire ametsa betetzea nahi dut.

NORENTZAT:

Lehen Hezkuntzako 2. mailako umeak (lehen zikloa).

IRAUPENA:

Ordubete.

JARDUERAREN XEDEAK:

- Gurasoak ibilgailuetan haurrentzako dauden euste-gailuak erabiltzearen onuren gainean sentsibilizatzea.
- Familia-bidaietan haurrentzako euste-gailuen bidez babesteko beharraren gainean hausnarketa egitea.

BEHARREZKO BALIABIDEAK:

- Lapitzak.
- Gutun-eredua.
- Bi aldeetatik inprimatutako fitxa bana umeentzat.




JARDUERAREN ERABILERA:

Helduek bezala, haurrek ere eskubidea daukate segurtasun-gailu batekin bidaiatzeko, istripua izanez gero, lesiorik izan ez dezaten. Ibilgailuek dakartzaten segurtasun-sistema gehien-gehienak (uhalak, airbag-ak, buru-euskarriak...) ez daude adin horietarako pentsatuta edo diseinatuta. Beraz, beharrezkoa da haur bakoitzak haurrei eusteko gailu bat izatea eta behar bezala erabiltzea desplazamenduetan.



Nire ametsa betetzea nahi dut



Horien erabilerak, istripua izanez gero, % 40 murrizten ditu heriotza-lesioak eta % 70 zauri larriak jasateko arriskua.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, nahitaezkoa da gailu horiek erabiltzea 12 urtetik beherako haurrekin zirkulatzean, 135 cm-tik beherako garaiera baldin badute. Haurtxoak direnean, lehen urteetan, guraso gehienek betetzen dute betebeharrak. Hala ere, haurrak hazten doazen heinean, jaitxi egiten da haurren segurtasunarekiko sentsibilizazioa, eta, ondorioz, lau urtetik aurrera, ohikoa izaten da segurtasun-gailu horiek gutxiago erabiltzea. Hainbat arrazoi erabiltzen dira (ibilgailuan gailu bakarra edukitzea, bide-tarte laburrak izatea, haurrak protesta egitea edo ezezkoa ematea gailua erabiltzeko orduan...) jokabide hori justifikatzeko, baina trafikoko istripuen ondorioek gogorarazten digute adingabeak babestu behar ditugula.

Jarduera honen bidez, ume bakoitzak sentsibilizatu behar ditu bere gurasoak eta gogorazi behar die ibilgailu partikularreko joan-etorriak segurtasunez egin behar dituela.

JARDUERAREN TESTUINGURUA:

Jarduera hau umeak zenbait eremutan azalpenak idatziz egokiro, modu koherentean eta zuzenean eman ahal izateko testuinguruan sartzen da.

Zehazki, jakinarazpen idatziaren eremuan, jarduerak umeek kode idatziaren arauak berenganatzeko laguntza ematea du helburu, bai eta testu-mota baten antolaketa zuzenera hurbiltzea ere (espazioaren aurkezpena eta banaketa), kasu honetan gutuna.

JARDUERAREN GARAPENA:

Jarduera hau gelan garatuko da.

a) aukera

Irakasleak erantzen den gutun-eredu bana banatuko die umei, fitxan kopia dezaten, testuaren antolaketari eutsiz (espazioaren aurkezpena eta banaketa).

Halaber, testuaren diktaketa egin ahalko da.

b) aukera

Taldeko garapen-mailak aukera ematen badu, irakasleak gutuna hainbat aldiz irakurri ahalko du eta istripuaren kasuan haurraren euste-gailuak erabiltzeak dakartzan abantailei buruzko oharrek egiteko egoera aprobetxatu ahalko du.

Gero, ume bakoitzak fitxan bere aita, ama edo tutorearentzako gutuna idatziko du; horren bidez, autoan egindako joan-etorrietan egokiro babestuta joateko nahia adieraziko dio.

Gutuna idatzi ondoren, fitxa bere familiari entregatuko dio.